

## KRONIKA-GOGOETA-KRITIKA

*Kronika-Gogoeta-Kritika sail honek "eusalgintzaren eta euskal kulturgintzaren begiragunea eta horren dinamikari buruzko gogoetaren eta kritikaren lekunea izan nahi du. Aldizkariaren (edota EKBren) eritzi ofiziala izan gabe, eusalgintzako eta euskal kulturgintzako hainbat arazori buruzko bere jarrera markatuz joan nahi du EKBk sail horren bidez, beti kontutan edukiz EKB barruko iritzi-zabaltasuna eta irekitasuna. Zabaltasun-irekitasun horien ispilu izan nahi du EK2000 sinaduraren pean sail honetan idazten duten idazleen partaidetza ugariak.*

### IKASTOLAK ETA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Ikastola askok ospatu dituzte azken bi urteotan beren zilarrezko ezteiak: 25 urte sortu zirela. Uste izatekoa da agian horietako batzuri okertu egin zaiela ospakuntza, bere orain arteko statusa aldatu beharrean. PSOE, EAJ eta Eeren arteko hitzarmen politikoaren eskola-hitzarmenaren arabera, udazkenean urtea amaitu baino lehen, dena dela Euskal Eskolaren lege berria etorriko da nonbait; eta horren ondorioz, ikastola bakoitzak aukeratu egin beharko du, antza, aurrerantzean eskola publiko ala pribatu izan.

Hitzarmen politikoak gauza asko mugatu ditu, zalantzarik gabe; baina oraindik ez dago dena erabakita; aspalditik hasia eta nahikoa berotua eta aski mindua dagoen eztabaida politiko-soziala biziagotu egingo da udazken honetan.

Hainbat ikastolarentzat gainera dramatikoak eta erdiragarriak gerta daitezke datozen hilabeteak, etorkizunari buruz erabaki larriak hartu beharrean. Azken hogeitabost urteotan eusalgintzaren sinbolo garrantzizko ezezik, horren motore ere izan dira ikastolak. Horrela hartu izan ditu, euskarritu eta bultzatu, euskal gizartearen parte handi batek behintzat. Azken aldian, ordea, bestelakorik ere entzun izan dugu sektore politiko eta sozialen batzuren aldetik: Euskal Herriaren normalkuntzarako eragozpen direla ikastolak; alderdikeriak eraginda dabilela horien Konfederazioa; interes korporatibistak defenditzen dituztela; presio-talde bihurtuak daudela...

Eusalgintzako munduan, berriz, jokabide "sektorialista"tzat salatu izan da behin baino gehiagotan Konfederazioarena; hau da, euskal gizarteak eta eusalgintzako beste sektoreek ikastolena beren arazo handitzat hartu izan duten bitartean, ikastolek "sektorializatu" egin dutela beren arazoa beste sailenetatik bereizi. Kontradikzio handitxoa! Hala ere, irakaskuntzaren eta euskal eskolaren arazoa euskal gizarte osoarena denez, eusalgintzako sektore guztiak sentitzen dira berriro ere inplikaturik oraingo Euskal Eskolaren eztabaidan. Eusalgintzako sail guztien solidaritatea berriro eta sendotu beharrekoa da.

Meritu bikaina dute ikastolek, Euskal Herriaren historiak gogoz ezagutuko diena, Herri honi esperantza berria eman eta eutsi diotelako. Txalogarria izan da, baita ere, egoera berrian erabaki berriak hartzekoan, egin duten ahalegina, ez bakarrik egokitzen saiatzeko eta bai beraiek lideratzeko Euskal Eskola Berriaren eztabaida eta bidea. Horren adierazgarri da noski beraiek legen forman eztabaida sozial eta politikorako eskainitako proposamena.

Urte luzetan ikastolen defentzaile sutsu agertu diren sektore sozialak ere ez dira agian guztiz bat etorriko ikastolen proposamenarekin. Hala ere, euskal gizartean eta bereziki euskalgintzako munduan zalantza handiak daude Jaurlaritzako hiru alderdiek sinaturiko hitzarmenari buruz. Horrek dituen alderdi guztiz eztabaidagarrien eta arbuiagarrien artean, elementu bihurriak gertatu dira tartean, txantaiaren itxura hartu dutenak. Badirudi ikastolak behartuta gertatuko direla eskola publiko ala pribatuak izatera, eta hormaren aurrean ipiniko dituela hitzarmenak eta ondorioz etorriko den legeak; bainba ikastoletatik beraietatik hasita, inork ez du ukatzen bi eredu (eskola publikoaren eta eskola pribatuaren) eskema. Kontua da zein eskola modu nahi den: publikoa nahiz pribatua nola definituko eta legeztatuko diren. Ikastolen zalantzak eta drama hortik datozela dirudi. Erabaki erdiragarri horri, berriz, beste elementu ekonomikoa erantsi diote, txantaiaren itxuraz gainera: hau da, aurreko urteetan emandako dirua itzuli beharko dutela sare pribatua aukeratzen duten ikastolek.

Situazio honetan oso argigarria iruditu zaigu Sortzen taldeak eskola eta ikastoletako guraso eta irakaslek eratuak egin duen proposamena: Euskal eskola publiko nazional eta euskaldunaren alde. Horrela publikotasunaren eztabaida estua lokalen jabetzari lotua-gainditu egin dute, eskola bakoitzaren programazio- eta gestio-ahalmenean ipiniz erakunde publikoen eta eskolaren beraren arteko partaidetza. Bestalde euskal eskolaren kontzeptuari ez zaio euskararen aldetik bakarrik begiratzen, eta bai euskal kulturaren transmititzaile eta eragile izatetik ere. Guzti hori ikastolek egindako historiaren bidetik doala iruditzen zaigu. Beraien lana aitortzea da, nahiz eta orain egoera aldatzean, egokitu beharra izan.

Alderantziz, Ikastolen dinamika eta eztabaida osorik okertzera eta erabat ukatzera dator Veleia taldeak ezarritako eraso; benetako eraso beserik ez bait da horiena, Ikastolek orain arte bideraturiko dinamikan. Irakasleak euskalduntzeko baliogabetzat jota dagoen A eredu bera gehiegizkotzat hartzen dute, eta guztiz opzionaltzat jarri nahi dute euskara hala nahi dutenentzat, laugarren eredu bat sortuz: C (castellano) eredu. Gutxienez euskal gizartearen desintegratzailatzat jo behar horrelako proposamena; ez bakarrik Euskal Herri euskaldunaren aurka agertzen direlako, eta bai elebitasun diglosikoaren beraren bidea ere ukatzen dutelako. Zorionez, Veleiaren erasoak ez du oraingoz eragin handirik izan Araban bertan, gero eta gehiago bait dira B eta D ereduak aukeratzen dituzten gurasoak; eta azkenekoz haurtzaindegitan sartu direnetatik %80 B eta D ereduetan sartu dira.

Ikastolek, irakaskuntzako indar guztiek eta euskal gizarte osoak aurrera begira jarri beharra daukatela dirudi, eskolari dagokionez; berehalakoan datorren eztabaida sozial eta politikoari begira, bertan parte hartzeko eta hain garrantzi handikoak diren erabakietan partaide izateko prest egon behar dutela. Bertan jokatzen bait da ez bakarrik irakaskuntzaren edota ikastolen arazo soila; euskararen, euskal kulturaren, Euskal Herriaren eta gizartearen arazoa dago jokoan, Euskal Herriaren integrazio sozio-kulturalaren eta berreraikuntza nazionalaren bidean.

Hiru eztabaida-puntu funtsezko daudela uste dugu tartean, zentzu horretan, aparte eskolaren beraren barruko konfigurazioa. Hauek dira:

a) Publikotasunaren kontzeptua. Hori ez da nahasi behar ez estatalarekin ezta gubernamentalarekin ere. Eskolan diharduten indar sozialek beren protagonismoa eta partaidetza nagusia eduki behar dute eskolaren gestioan, programazioan etab. Zerbitzu publikoa izateaz gain, eskolaren publikotasunak partaidetza sozial hori benetakoa izatea eskatzen du, eskolaren autonomia ere indartuz eta sendotuz.

b) Euskal kultura. Zalantzarik ez dago Euskal Eskola Publikoa Euskal Herriari dagokiona izan behar duela. Herri honen berbizkunde kulturala bultzatuko duen eskola behar dugu. Horretarako euskal kulturak izan behar du eskola horren oinarria eta arnasa. Guztiz garrantzizkoa da, beraz, programazioa eta edukinak ezartzeko eta aukeratzeko eskubidea eta independentzia osoa edukitzea Euskal eskolak.

c) Euskalduntasuna. Euskal eskolak Euskal Herriaren euskalduntzearen eta euskararen berreskurapen osoaren zerbitzuan egon behar du. Areago, horren dinamizatzaile nagusi izan behar du. Horretarako neurri legal, didaktiko eta pedagogikoak ipiniz. A ereduak porrot egin baldin badu, bietako bat: eredu horrek ez du balio eta baztertu egin behar da, edota eredu horrek ez du balio bestelako neurririk hartzen ez baldin bada, eta orduan beste neurri horiek hartu behar dira.

d) Aurrekoaren haritik, hain zuzen ere, ez A eta ez B eta ez D ereduak ari dira gertatzen benetan baliagarriak. Zergatik? Ikastolaren ahalegina ezin delako bere bakardadean hartu; Euskal Herriaren euskalduntzeak ez du sektorialismorik onartzen; Euskararen berreskurapenerako politika eta plangintza orokorraren eta sektoreartekoaren barruan kokatu behar da eskolaren ahalegina, ikasleak eta gizarte euskalduntzeko.

## **IPARRALDEKO IRRATIAK HAMAR UTEKO HOTSAK DEIADAR BIHURTU**

Iparraldeko hiru irratia euskaldunak edo gehienbat euskaraz ari direnak beren hamar urteak ospatzen ari dira aurten: Gure Irratia (Lapurdi), Irulegi Irratia (Behe Nafarroa) eta Zuberoako Boza (Zuberoa).

Zalantzarik gabe, irratia frantsesa eta ia frantses hutsezko irratia entzuten ohituta zeuden euskaldunei harrigarria gertatu zitzaizen hiru aldetatik euskarazko hotsa entzuten hastea, euskal kantekin batera. Oso apal, hasieran; gerora zabalduz eta finkatuz joan dira hiru irratia.

Hamar urte eman dituzte lanean, kemen eta berotasun handiz eta laguntza publiko oso urriz. Orain bertan estuasun ekonomiko larritan egin behar dute lana. Pariseko Gobernutik hartzen dute laguntza apurra: 200.000 libera. Departamenduko Kontseilu Nagusitik 5.000 libera besterik ez dute hartzen irratia. Bitartean, Baionako Irratiak 500.000tik gora hartzen ditu Departamendutik eta milioi erdi inguru Udaletik. Gure Irratiak ez du nonbait merezi horrelakorik, Baionan kokatuta egon arren, eta musika-programetan entzulegorik handiena berak duen arren.

Pizkundera erakundeak euskal kulturako elkarte eta sail herritarren laguntzeko "euskal buxeta" landu du. Bertan 300.000 libera eskatzen dizkio Departamenduari Gure Irratiantzat eta 200.000na beste biantzat.

Pariseko Senatuak euskara eta beste hizkuntz gutxiak "legez kanpo" utzi dituen urte honetantxe ari dira ospatzen irratiek beren hamar urteak. "La langue de la Republique c'est le franais", frantsesa da Errepublikako hizkuntza, aldarrikatzen du Frantziako Konstituzioak ere orain. Beste hizkuntzak Konstituziotik kanpo gelditu dira gutxienez. Baina Konstituzioak ukatzen dion ofizialtasuna, herriarengandik hartua du euskarak. Hamar urteok dira horren erreferendua.

Gero eta ozenago bihurtzen ari da irratien hotsa eta euskararen -eta beste hizkuntza gutxiuen- aldeko errebindikazioa. Joan zen maiatzaren 30ean iparraldeko euskaldunak kalera atera ziren beren deiadarra zabaltzera. Deitzaileen artean zeuden noski Euskal Irratiak, AEK, Seaska, EHE eta Pizkundearekin batera. Deiadar izena hartu dute, Katalanen "Crida"ren antzekoa. "Zuzenbidea euskaldunentzat" titulupean Iparraldeko kultur sektore esberdinek dituzten errebindikazioak kaleratu zituzten manifestaldi jendetsuan.

Horien artean noski Irratienak... "Onarmena eta laguntza publikoa irratiantzat" eskatzen zuten. Zalantzarik gabe, orain dela hamar urteko ahots apalak gaurko deiadar ozen bihurtu dira. Ez daude ixiltzekotan.

## **UEU: EUSKAL UNIBERTSITATEAREN ERAGILE**

Aurtengo Udako Euskal Unibertsitatearen Irueko Ikastaroaren baitan mintegi berezi batek ihardun du Euskal Unibertsitatearen gaia aztertzen.

Nahiz eta UEUK bere sorreratik unibertsitate euskaldun baten beharra azpimarratu duen, eta, UEUren orain arteko iharduna Unibertsitate horren oinarrien prestaketa -profesionala, materiala, bibliografikoa- izan den, duela bi urtetik hona Euskal Unibertsitatearen gaia bereziki berpiztu egin da.

UEUren jatorria 70eko hamarkada hasieran Baionan egiten ziren Kultur Asteak izeneko ihardunaldietan dago. 1970etik 73ra burutu ziren kultur aste hauetan euskal kultura eta gizartea aztertzen ziren. Baina ekintza hauek nahikoak ez ote ziren eritzirik, Karlos Santamariak Baionako Kultur Astea Udako Unibertsitatea bilakatzea proposatu zuen Katalunian egiten zen "Universitat d'Estiu" eredutzat harturik.

Hasiera batean UEUren egitura eta helburuak oso finkatuak ez bazeuden ere, gutxika gutxika sendotzea eta horiek argitzea lortu zen. Sailak banatuz joan ziren, eta denbora pasa ahala gutxienezko espezializazio maila bat izatera pasa zen UEU.

1975. urtean UEUK garrantzi haundiko manifestu bat onartu zuen. Honek esaten zuenez, UEUK euskal unibertsitate baten beharra aldarrikatzen zuen. Unibertsitate honek izaera nazionala, herrikoa eta euskalduna izan beharko luke.

Lehen garai hau 1977an amaitu zen UEUko ikastaroak Hego Euskal Herrira pasatu zirenean. Erabaki hau hartzerakoan arrazoi askok izan zuten eragina. Alde batetik, ikusten zen partaideen zatirik haundienak Hegoaldean zuela jatorria, eta, bestetik, Hegoaldean zegoela euskal kulturaren indarrik haundiena. 1977tik aurrera Iruñan egin dira udako ikastaroak, baina hauek Hegoaldera eramateak Ipar Euskal Herrirako ekarri zuen kaltea dela eta, 1985ean Baionan ere ikastaroak antolatzen hasi ziren. Ihardunaldi hauen bidez posible izan da Iparraldeak bizi duen egoera bereziaz eztabaidatzea eta mintzatzea. Euskal Unibertsitatearen beharra lortzeko bidean UEU irakaskuntza euskaraz bultzatzearen alde agertu da, batez ere goi mailetan, UEUK bere manifestuan adierazia duenez, "Euskal Unibertsitatea lortzeko bidean asko ibili behar da oraindik, eta UEUK bide horretan zereginik eta zeresanik izango ditu.

Arestian esan bezala, aurtengo ikastaroetan mintegi batek gai hau jorratu du, baina ez huts-hutsetik hasita, zeren eta joan den ikasturte osoan lan-batzorde bat aritu bait da ikuspegi ezberdinetatik gaia lantzen, gerora mintegian sakondu ahal izateko.

Mintegiaren kolofoi gisa bilera zabal bat ospatu zen UEUn bertan, mintegiaren ondorioak aztertzeko eta aurrerantzean egin beharrekoa aztertzeko. Biltzar honen emaitzez gai honi buruzko "Liburu Zuria" prestatzea erabaki zen eta horretarako batzorde bat eratzea. Liburu Zuri hau izango da gerora Euskal Unibertsitatearen aldeko Plataforma zabal bat osatzeko erabiliko den oinarritzko materiala, zeren eta garbi ikusi bait zen helburu hori lortu nahi bada, hasiera hasieratik eragile sozial, administratibo eta ekonomiko ezberdinen parte hartzea behar dela. Hasi baino ez da egin, baina inoiz izango du Herri honek behar duen Unibertsitatea.

***EK2000***